



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
192. zkia . 2006ko azaroa

PILOTALEKUA BERRITZE LANETAN



4-10. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Asier Garaialde

15-17. Neguko jardunaldiak

20-21. Laxoa, euskal pilota

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Urriko demografia

JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tels. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 33
☎ 943 11 02 01
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Aliprox
SUNSUNDEGI

Telf. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI


TABERNA - JATETXEA



- Eguneko menua
- Menu bereziak
- Karta
- Gure terraza goza ezazu

Gora Ama Guadalupekoa

Mouriskot etxea · Tel. 943 64 53 64
20280 HONDARRIBIA (Gipuzkoa)



Hawaii

Errebellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

Hondarribiko arrantzaleen esamoldeak



Ainara Maya Urroz
Euskal filologoa

Hondarribiko Udaleko Euskara Zerbitzuak berebiziko garrantzia eman dio arrantza munduko euskarari eta horretarako euskal filologo bat kontratatu du, ni neu alegia. Arrantzaleen munduko esamoldeak eta bertakoen hitz bereziak biltzeko asmoz, dialektologiako ikerketa-lan mardul eta on bat hartu dut oinarri.

Lan hori, iaz Txomin Sagarzazuk "Hondarribiko eta Irungo Hizkerak" CD-liburua argitaratu zuen: 2000. urtean Irungo Udalak emandako Loidi bekaren ekimenez eta 2001. urtean Hondarribiko Udalak bertako hizkera aztertzeko bekaren laguntzarekin, lan horretan hainbat berriemilarekin izandako elkarrizketak grabatu eta transkribatu zituen, baita dialektologiaren aldetik portuko hizkera sakon aztertu ere.

Nik, berriz, era xumeagoan Udaleko Euskara Zerbitzuak eman didan aukera baliatu nahiko nuke portuko hizkera hori alderdi etnolinguistikotik lantzeko eta berandu baino lehen, adinean aurrera doazen onddarbiarren bizipenak biltzeko (itsasoarekiko harremanen ondoriozko hizketamoldea), gazteago garenon aberasgarri; behar hori ikus-

ten dut, batez ere, ikusirik gazteen artean gutxi eutsi diotela arrantzalearen lanbideari eta horrekin batera hizkuntzaren zehaztasun horri.

Gainera, bilketa-lan hau, bukatzerakoan ere, beste lan sakonago bat(zu)en abiapuntua izan nahiko luke, baina oraindik hasi besterik ez naiz egin, eta lana ilusio handiz hartu dut; ideia bera gustatzen zait, baina aitortu behar dut ere aurrean lan konplikatu badudala. Niretzat erronka handia da Hondarribiko Udal Euskara Zerbitzuak eskaini didan lana: herri-hizkera gehiago ezagutzeko asmoaz aparte, bereziki arrantzaleen beraien esperientziak eta hizketa-moduak jasotzea gustatuko litzaidake eta hori ez da erraza izango.

Beraz, aurtan irundar bat izango duzue zuen lagunartean eta itsas etxera sartuko naiz zuen baimenarekin...

*Kaira bidean
Lur muturrari begira
Hondartza barrenean
Itsasontzien mira*

Argitaratzailea:

Udal Euskara Batzordea

Erredakzioa/publizitatea:

ZIF & Comunicación

zifcomunicación@terra.es

Tel.: 943 63 81 28

Kolaboratzaileak:

Koldo Ortega

Ainara Elizondo

Martin Iturbe

Lurdes Zubeldia

Argazkiak:

Hondarribiko Udala

ZIF & Comunicación

Fernando de la Hera

Floren Portu

Maketazioa:

Usoa Ramírez Melón

Inprimategia:

Antza

L.G. SS 122/86

HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

TXANDAKO BOTIKAK AZAROAN ETA ABENDUAN

19- ALMAJANO Mendelu, 26	943 640068
26- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
3- ERAUSKIN San Pedro, 22	943 641018
6- SAGRARIO FIZ Socoa merkatalgunea	943 644316
8- ALAMEDA Harresilanda, 9	943 645798
10- MAYI MARTINEZ Alonso	943 642191
17- IRAOLA San Pedro, 5	943 641027

TXANDAKO OKINDEGIAK AZAROAN ETA ABENDUAN

19- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
26- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
3- GARMENDIA Portuan	943 641136
6- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212
8- ARRATIBEL Mendelu auzoa	943 641975
10- GARMENDIA Portuan	943 641136
17- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	943 641212

Gabonetarako argi berriak erosi ditu Udalak

Udaleko Zerbitzuen Departamentuan gainean ditugun Gabonetarako argi berriak erosi dira. Horretarako 30.000 euroko inbertsioa egin da aste esanguratsu hauetan hiriko kaleak edertzeko.

Udal zinegotzi guztiek aho batez onartu zuten proposamenaren ondorioz, honako toki hauetan jarriko dira argi berriak: Iturriberri-San Nikolas, Amute, Amutalde, Mendelu, Korreos, eta jakina, San Pedro kalea eta Kale Nagusia-Alamedako biribilgunea.

Hiritarren aldetik geratzen zaigun gauza bakarra, dekorazio hauek errespetatzea da, azken urteotan argi ugari puskatu egin baitira.



Gabonetan kaleak argiz betetzen dira

Abenduaren 24an haurren Olentzero lehiaketa ospatuko da



Olentzero lehiaketan parte hartzeko epea abenduaren 12an amaitzen da

Gabon egunean goizez urtero bezala haurrei zuzendutako Olentzero lehiaketa ospatuko da. Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute gutxienez zortzi eta gehienez hamabost neska-mutilez osatutako herriko taldeek. Partaide guztiek 16 urte bete gabekoak izan beharko dute eta bakoitzak bere taldearen izena agerian eraman beharko du.

Parte hartu nahi duten talde guztiek Gazte Informazio Bulegoan (San Pedro kalea, 15), abenduaren 21 bitarte izena eman beharko dute. Taldeek epaimahai baten aurrean aurkeztu beharko dituzte beren Olentzeroak, epaimahaia Santiago Kanean egongo da, goizeko 10:00etatik 11:30ak bitarte, "Olentzero" abestea ezinbestekoa izango da. Epaimahaikideak kontuan hartuko duen bakarra, Olentzeroren (irudiaren) kalitate artistikoa izango da, beti ere partaideen adina kontuan hartuz.

Gabonsariak 30 eta 100 euro bitartekoak izango dira. Gabonsarien banaketa Bretxan egingo da 12:30etan eta talde bakoitzak bere Olentzerorekin bertan egon beharko du.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu, bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Etxe hondakinak gaika biltzeko kanpaina berria burutu da

Txingudiko Zerbitzuek posta bidez kanpaina bati ekin diote gaur, Hondarribian eta Irunen dituzten 33.000 mila inguru etxeko bezeroei zuzendua, eta bertan garbi adierazten dira etxe hondakinak gaika biltzeko oinarriak. Informazioa emateko gutun horretan txartel bat egongo da doan banatuko diren 5.000 ontzi horietako bat lortu ahal izateko. Ontzi bat zuzenean lortu nahi duten pertsonak txartel horrekin joan beharko dute ontzia jasotzera gutunean zehaztutako ordutegian, egunean eta lekura.

Kanpaina hau osatzeko, iragarkiak egingo dira tokiko komunikabideetan, eta zehatzago adierazteko, prentsa idatzian, irradian eta telebistan. Espainiako pertika txapel-dun Naroa Agirre atleta gipuzkoarrak hartuko du parte iragarki horietan. Azken batean, kontua da hiritarrak animatu eta kontzientziaztea hondakinen gaikako bilketan modu aktiboagoan eta etxetik parte har dezaten.

Bidasoa eskualdeak ehuneko handia du gaikako bilketan eta birziklatzean, %30,5 inguruko portzentaia baitu, Europako Batasunean gehien birziklatzen duten lurraldeen antzeko kopurua, hain zuzen ere. Txingudiko Zerbitzu Mankomunitatearen 2016rako helburua da %40ra iristea hondakinen gaikako bilketan. Bidasoa Behereko hiritarrek batez beste 72 kilo paper eta kartoi, 28 kilo beira eta 11 kilo plastikozko, metalezko eta brick erako ontzi birziklatzen dute pertsona bakoitzeko. Hala ere, oraindik asko dago egiteko, 2005. urtean pertsona bakoitzeko 73 kilo paper eta kartoi, 21 kilo beira eta 43 kilo ontzi geratu baitziren jaso gabe.



Zabor mota bakoitzeko kontenedore bat dago

Euskaltegiak 200 ikasle dauzka euskara ikasten



Euskaltegia Biteri kalean dago

Hondarribiko Udal Euskaltegiak 2006/2007 ikasturtean inoiz baina ikasle gehiago dauzka. Urrian hasi zen denboraldirako 200 pertsonak eman dute izena, azken urteotako goruntzako prozesuari eutsiz. 2001-2002 ikasturtean ikasle kopurua ez zen 100era heltzen, eta bost urtetan kopurua bikoiztu egin da.

Arantxa Ezeiza Udal Euskaltegiko zuzendariak aurtengo gorakadaren erantzuleetako bat "modulu txikien sistema" dela dio. "Gero eta eskaera handiagoa dago modulu txikiarako, aurren hamazazpi talde ditugu. Astean bi egunetako moduluak arrakasta handia dute eta horregatik ikasle kopurua igo egin da aurren 200era heldu arte".

Bi egunetako moduluak lau edo bost klase ordu ematen dituzte astero, hiru egunetako moduluak, aldiz, zazpi ordu, eta lau egunetako moduluak hamar ordu. Bederatzi urratsetarako talde anitz daude, era berean aipatu behar da EGA titulua lortzeko aurren bost talde daudela.

Udal Euskaltegiak ordutegi malgua eskaintzen du ikasleentzat. Goizetan 9:00etatik 12:00etara, bazkalandoan 14:30etatik 17:00etara, arratsaldean 17:00etatik 19:00etara eta gauez 19:00etatik 21:00etara ikas daiteke bertan dauden sei irakasleekin.

Udaleko Euskara Zerbitzuak dirulaguntzak eskaintzen ditu euskara ikasi nahi dutenentzat. Matrikula egin eta klaseen %80ko asistentzia izanez gero, matrikularen ordainketan laguntzak ematen dira.

2007 urterako zergak %4 igoko dira

Urriaren 19an ospatutako Osoko Bilkuran, udal zinegotziek datorren urterako ordenantza fiskalak Ogasun Batzordetik etorritako proposamena onartu zuten, eta ondorioz, tasak %4ko igoera orokorra izango dute.

Zerga hauek bost motakoak izango dira: Ondasun Higiezi-
nen Gainekoak, Ibilgailuen Gainekoak, Obren Gainekoak, Jabari publikoaren erabileraren gainekoak eta Zerbitzu publikoak eskaintzeagatik.

Aitor Kerejeta Ogasuneko Zinegotzi eta Lehen Alkateordeak esan zuenez, "%4ko igoera orokorra burutuko da aurren. Urtero egiten den igoera, ezinbestekoa gure herriak bere betiko martxan jarrai dezan".

Osoko Bilkuran bildutako alderdi denek, EAJ/EA, EB, PSOE eta PPK aldeko botua eman zuten, eta BRANKAK aldiz aurkakoa.



Ibilgailuen gaineko zergak %4ko gorakada izan dute

Psilocybe elkartearen lokal berria aurrera doa

Haserako aurrekontua handitu egin behar izan da



Psilocybe musika taldearen lokala Amutalden dago

Azken urteotan Psilocybe musika elkarteak erabiltzen duen lokala, Amutaldeko 12 zenbakian (lehen Martinez Anido Ikastetxea izandakoa) birgaitze-obra egiteko aurrekontua aldatzeko proposamena aztertu zuen urriaren 19ko Osoko Bilkurak.

Borja Jauregi alkateak esan zuenez "oso proiektu garrantzitsua da, eraikin oso bat herriko musikarientzat, musika tresna bat jotzea gustoko duen edonorentzat. Hasiera batean aurrekontua 360.000 eurokoa zen proiektua, eraikuntza eta ekipamendurako, baina normala den bezala, motz geratu da eta aurrekontua aldatu behar izan da, denetara kopurua 519.000 eurokoa izango delarik". Alderdi guztiek adostasuna erakutsi zuten.

Birgaitze proiektua elkarteko kide bat burutzen ari da, eta datorren urterako lanak hastea espero da.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga,4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE



ERRETERIA

Larzabal 14 • 943 34 01 82

DONOSTIA

Zabaleta 54 • 943 28 65 72

HONDARRIBIA

J. Alonso 7 • 943 64 27 77

Mendelu 17 • 943 64 70 58

Gure Laguntza gobernuz kanpoko erakundeari harrera



Erakundeko kideak zenbait zinegotziren artean

Pasa den ostiralean eguerdiko ordubata aldera Ignacio Galdós jesuita Gure Laguntza Gobernuz Kanpoko Erakundearen ordezkari moduan, Udaletxean izan zen bere erakundeak jasotzen duen diru laguntza eskertzeko asmoz.

Berarekin batera, Juanito Iriazabal etorri zen, bera baita erakundeak Hondarribian duen ordezkaritza zuzendaria. Xabier Gezala, Iñaki Amiano, Kattalin Noblia, M^aLuis Arija zinegotziak eta Gizarte Zerbitzu eta Gazteriako zinegotzia den Maite Pelaez egon ziren.

Gure Laguntza Gobernuz Kanpoko Erakundeak aurtien Udalean 6000 euroko laguntza jaso du, eta azken urteotan Hondarribiak erakunde honi emandako laguntza eskertzeri etorri ziren bere ordezkariak. Erakundea nagusitan bi esparrutan indian dabil lanean duela urte asko: hezkuntzarekin loturiko azpiegiturak handiagotu eta hobetu, eta laborategietako ekipamendua osatzea.

Ignacio Galdós jesuitak biziki eskertu zuen Udalarengandik 2001 urteaz geroztik jasotako 37.419 euroak. "Azpiegitura egokiak osatzeko balio izan digute. Indiako jendeak askok eskertzen du guk egindako lana, eta guk era berean Hondarribiko hiriari eskertzen diogu emandako laguntza".

Euskara Batzordeak XV. Txiste Grafikoen Lehiaketa antolatu du

Udaleko Euskara Batzordeak XV Txiste Grafikoen Lehiaketa antolatu du beste urte betez. Lehiaketa honetan edonork parte har dezake, eta hiru maila izango ditu: A maila, 16 urtetik gorakoentzat, B maila 12 urtetik 16 bitartekoentzat eta D maila 12 urtetik beherakoentzat.

Gaia eta teknikak libreak izango dira eta lan bakoitzak bineta bat bakarrik izan beharko du. Gainera, testua ezinbestekoa da eta euskaraz izan beharko du.

Lanak Hondarribiko Udaletxeko Euskara Zerbitzuan aurkeztuko dira 2006eko abenduaren 12ko 12 orduak baino lehen. Epea igarota, aurkeztutako lan guztien erakusketa jarriko da Zuloaga Etxean eta hori amaitzean egile bakoitzak berea jaso ahal izango du.

Sariei dagokienez, A Maila, 300 euro lehenarentzat eta 200 bigarrenarentzat. B mailan, 150 euro eta komiki-liburuak lehenarentzat eta 60 euro eta komiki-liburuak bigarrenarentzat. Azkenik, D mailan, lehen bi sailkatuentzat komiki-liburuak emango dira.



Joan den urtean saritutako txistea



**BAR
HONDARRIBI**

**AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN**

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



San Pedro, 27 20280 Hondarribia
Tel.: 943 642 102

Alkartasuna elkartean frontoi bat eraikiko da

Jaizubian egin zenaren antzekoa izango da



Ezkerrean, Alkartasuna elkartearen irudi bat, eta eskubian Gregorio Berrotaran zinegotzia

Udalak 124.000 euroko aurrekontua onartu zuen pasatako urriaren 19ko Osoko Bilkuran Guadalupeko igoera dagoen Alkartasuna elkartean frontoi bat eraikitzeko. Zinegotzi guztiek onartu zuten proposamena, Brankakoek izan ezik, abstentzioa erabaki zutelarik.

Frontoi berri honen istorioa ez da berria. Berari buruz gehiena dakiena Gregorio Berrotaran zinegotzia da. "Aspaldidanik genuen Alkartasunaren frontoi bat eraikitzeko asmoa. Gauza bat dela edo bestea dela, proiektua bertan behera geratu da behin baina gehiagotan, baina azkeneko Osoko Bilkuran onartu egin zen transferentzia baten bidez beharrezkoa zen diru kopurua lortzea, eta laster dira has-tekoak obrak".

Frontoiaren neurriak txikiak izango dira. "Ez da Jostaldi bezalako frontoi bat egingo, ez baitago tokirik. Gure asmoa Jaizubian duela urte batzuk eraiki zen bezalako pilotalekua eraikitzea da. Kasu hartan auzoko bizilagunek egin zuten, eta arrakasta handia izan zen. Oraingo hone-tan ere antzeko zerbait egin nahi dugu. Jendeak frontoi-aren eraikuntzan laguntzen duenean, gero normalki bere mantenimendua hobea izaten da, jendeak hobeto zaintzen du eta" dio Berrotaranek.

N-121-A errepidea zabaldu eta bidegorri bat sortuko du Foru Aldundiak

Egunero hainbat hondarribiarrek erabiltzen duten Behobia-Endarlatsa errepidea zabaldu eta hobetzeko aurreproiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Honi esker, Nafarroako Errepideen Sareko puntu beltz honi amaiera jarriko diote. Hortaz gain, Irun-Bera lotuko duen bidegorria sortuko dute, antzinako Bidasoako trenbide zaharraren aztarnak aprobretxatuz.




Errepidearen irudi bat

Egokitze lan hauek Behobiako Laskuain biribilgunetik Endarlatsaraino doan Irungo tartegune laburrean burutuko dira, hain zuzen, Behobia, Bidasoa auzoa eta Bera artean. Eta behin proiektua zehazten dutenean, 2007an abiatu eta bi urtez luzatuko dira lanak.

103 urteko Ramona Ancisar zendu da

Ramona Ancisar, pasa den uztaillean 103 urte zituen Hondarribiko amona, azaroaren 11n zendu zen. Azken bi urteotan Udaletxearen omenaldia jaso zuen bere etxean urtebetetze egunean, zenbait udal-ikideren bisita jaso zuenean.



Ramona Txenduenea Goia base-rrian bizi zen, eta orain, bere ahizpa Prudencia da herriko pertsonarik hel-duena, uztaillean 100 urte bete baitzi-tuen.

Ramona Ancisar, azken urtebete-tzean

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel. 943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Itsasargi 3
Tel. 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

Saihesbide berriak Torrea baserriaren desagerpena ekarri du

Hondarribiko bigarren saihesbidearen eraikuntza etengabe aurrera doa. Gipuzkoako Ahaldu Nagusia den Joxe Joan Gonzalez de Txabarri izan zen ekitaldi batekin Hondarribiko saihesbidearen bigarren faseko lehen harria ipini zuena maiatzaren 8an, eta orduz geroztik, erritmo bizian egiten ari da proiektua.



Torrea baserriaren irudi bat

Aste honetan Torrea baserria bota egin da, ezinbestekoa baitzen Hondarribiarentzat hain garrantzitsua den errepide berri hau eraikitzeko. Ekitaldi historiko ugarien lekuko, baserri honi buruzko lehen datua 1707koa da, orduko botikaria zen Francisco de Calatayud-en bilobak jabeak zirelarik. Hala ere, ez ziren bertan bizi, Alde Zaharreko Torre de Benesa etxean baizik. Agian izena hortik dator. Ondoren, Jabego Erregistroari jarraiki, jabeen eskualdaketa ugari egon dira, gaur egungoetara heldu arte, Ancisar-Peluaga familia.

Saihesbidearen bigarren fase hori egitean, gaur egun hiri

barrua zeharkatzen duen ibilgailuen kopuru handi bat bereganatuko duen errepidea bukatuta izango da, eta horrek zalanztarik gabe, herriko gunearen egoera eta zirkulazio baldintzak asko hobetuko ditu.

Obrak Santa Engraziako biribilgunean hasi ziren, Jaizkibelgo errepidearekin elkartu arte eta jadanik eraikia dagoen bidetik jarraituz (Labreder Kalea), Abarka jatetxearen parean dagoen errepidearekin bat egiten duelarik.

Hiru biribilgune egingo dira inguruko bideen arteko loturak lortzeko: Muliategoa, egiten ari diren urbanizaziora sartzeko; Montañakoa, dagoeneko zati bat eraikia duena, Jaizkibelgo errepidearekin lotzeko; eta Baserritar etorbidekoa, itsasargiko errepidearekin lotzeko.

Lehen fasekoaren moduan, errepide hau ere bi lerroko galtzada izango da. Trazatua zuzena da ia-ia eta aldapa txikiak ditu. Lehen 400 metroetan, saihesbidea bide gorri baten parean doa.

Obrak joan den otsailaren 8an esleitu zitzaizkion Mariezkurrena eta Zubieder enpresek osatutako aldi baterako enpresa elkarteari, 4.680.000 eurotan eta 12 hilabeteko epea ezarri zaio obrak egiteko.



Torre baserria zegoen eremuak itxura hau du orain



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK

www.inmobiliariaenara.com



VITALICIO
ASEGUROAK Rgs. Zbk. 3625

San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Emakumea pilotari ekintza abian jarri da aurten ere

Emakumea pilotari egitasmoa martxan jarri da aurten ere Jostaldi Pilotalekuan. Proiektu honek hiru alor jorratu nahi ditu: alde batetik eskola kirola, bestetik partaidetza-ko kirola eta, azkenik, kirol federatua izatea lortu. Ekimen hau 2004an sortu zen Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioaren eskutik eta, geroztik, herri gehienetan pilota eskolek jarri dituzte abian.

Saioak gaztetxo zein helduei zuzenduta daude eta hauetara azaltzea edo ez librea izango da. Pala ikastaroetan 25 urtetik gorakoek parte hartu ahal izango dute. Beraz, emakumeek Hondarribiko kirol teknikariengana jo beharko dute eta honek behar dituzten azalpen guztiak emango dizkie.

Emakumea Pilotari egitasmoa, pilotan nesken parte-hartzea bultzatzeko asmoz sortu zen 2004 urtean. Proiektua, Euskal Pilota Federazioak jarri du abian eta Foru Aldundia eta hainbat udalerrri izan ditu babesle ekimenak. Iaz Hondarribian antolatu ziren ikastaroek izan zuten arrakasta kontutan izanda, aurten ere abian jarri dira.

Saioetan parte hartzea edo ez erabat librea izango da, alegia, emakumeak nahi dutenean joango dira, inongo aurreko loturarik gabe eta aurretik abisatu beharrik gabe. "Material guztia eta Federazioko teknikaria pilotalekuan izango dira, jantzi egokia eramatea besterik ez da eskatuko", azaldu zuen Naroa Epeldek, egitasmoaren buruan dagoen emakumeak.

Ekimenean izena eman nahi duten emakumeek Udaletxeko Kirol teknikariengana jo beharko dute. Ordutegia astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara da. Gogoratu behar da Jostaldi Pilotalekua ez dagoela erabiltzeko moduan datorren urterarte, eta Hondarribiko Pilota Eskolatik abisatu zaigunez, klaseak Soroetako Pilotalekura eraman dira frontoi berria amaitua egon arte. Udalaren aurreikuspenen arabera, 2007ko Jai Nagusietarako Jostaldiren eraberritzea amaituta egongo da.

Txirrindulari Elkarteak denboraldia amaitu du

Hondarribia Txirrindulari Elkarteak aurtengo denboraldia amaitutzat eman du azaroaren hasieran egin-dako ohiko asanblada orokorrarekin. Elkartetik oso ondorio positiboak atera dira aurtengo denboraldiarekin. 26 bazkide berrik eman dute izena, eta gaur egun 290 dira bazkideak.

Martxoan hasi zuten denboraldia, eta ordutik hona, 36 igandetan antolatu dituzte irteerak. Ez da derrigorrezkoa parte hartzea, baina partehartzeak nabarmen egin du gora aurten.

Hortaz gain, aurten lehen aldiz ikastetxeetako ikasleei dei egin zaie bizikletan irteerak egiteko. Orotara 300 ikaslek baina gehiago parte hartu du eta bisitatu diren tokien artean, Artikutza, Leizaran, Endarlatza eta jakina, Hondarribia egon dira.

Txirrindulari Elkartearen web gunea berritu egin da. Bisitari asko ditu eta Elkartetik pozik ageri dira IrunWeb enpresak egindako lanagatik.



Guadalupeko igoerarekin amaitzen da denboraldia



Era guztietako kortinak, era guztietako eguzki-oihalak

Amute 8 - behea C. Telf: 943 667 003. Hondarribia

**PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA**

Bar Ignacio

**SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557**

Isuskizak jarraituko du txapelaren jabea izaten

Euskal Herriko Harri Zulatzaileen Bakarkako txapelak leku berean jarraituko du, Aritz Isuskiza hondarribiarrak jantzi baitzuen Bizkaiko Galdamesen, iaz egin zuen bezalaxe. 800 ikusle inguru batu ziren finala zuzenean ikustera. Kirolari bakoitzak hogei minutu zituen ahalik eta zulorik gehien egiteko.

Isuskiza zen irabazteko faboritoa. Txapelduna izateaz gain, berea izan zen kanporaketako markarik onena. Hondarribikoak ez zuen hutsik egin, eta berriro ere garaipenaren jabe egin zen. Hala ere, Jaizubia taldeko kirolariek egindako lana sekulakoa izan zen, haiek izan baitziren sailkapeneko lehen hiru postuetan. Hirurek osatu zuten Ligako taldea, eta han ere irabazi egin zuten. Hondarribiko taldeak sekulako urtea egin du. Taldeka irabazi egin du, eta Bakarkakoan lehen hiru postuak izan dira beraientzat.

Zulo bakarra Binakakoan izan zuten. Hura bereganatzeko ere faboritoak ziren, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan zuten. Gipuzkoan talde bakarra dago, ez dute babes handirik, baina Euskal Herriko onenak bihurtu dira urte bakar batean.

Jardunaldiko ezusteko nagusia Aurrekoetxeak eman zuen. Bera ere faboritoen artean zegoen, baina bizkaitarrak ez zuen egunik onena izan, eta zazpigarren geratu zen. Bere taldekide den De la Concepcionez ez zuen egunik onena izan, postu bat atzerago izan baitzen.

Gainerakoan, Isuskizak sekulako lana egin zuen, eta beste guztien gainetik agertu zen, zulo bat baino gehiagoko aldea kendu baitzion bigarrengoari, eta argi eta garbi utzi zuen gaur egun bera dela onena, emaitzek behintzat horixe erakusten baitute.

Bigarren posturako alde handirik ez zen izan, emozio faltarik ere ez, zentimetro gutxi batzuetan sartu baitziren hiru. Hala ere, bigarren eta hirugarren ere Jaizubia taldeko zulatzaileak izan ziren. Herboso izan zen, berriz, Bizkaiko lehenengoa.



Aritz Isuskiza txapelketako irudi batean

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

ASIER GARAIALDE

Izugarria Erraldoien Elkartea



Erraldoiak eta buruhandiak edozein festatako paisaia marrazten duten irudiak dira, baina gehienok ezer gutxi dakigu mundu honi buruz, eta lastima da. Izan ere, Hondarribia erraldoi eta buruhandien harrobi oparoa da eta Euskal Herrian bakarra den harribitxia ere ba omen dugu hemen. Asier Garaialdek, Izugarria elkarteko kideak, Hondarribiko erraldoi eta buruhandien muimenduaren berri eman digu, eta aipatutako harribitxi hori zer den jakin nahi bauduzue, hona jarraian Asierrekin izandako elkarrizketa interesgarria.

Nolakoa da zuen elkartea? Nola definituko zenuke?

Gure elkartea kulturala da, erraldoi eta buruhandien mugimendua gauza kulturala delako.

Aspaldikoa al da Izugarria? Nolatan sortu zen?

Orain 10-11 urte Hondarribian zegoen erraldoien konpartsa nahiko zaharkitua geratu zen eta konpartsa berritzea erabaki zen. Harresi elkarteak hartu zuen horren ardura, baina gerora ekintza kulturalak eta auzoari zegozkionak banatzeko premia sortu, eta Harresi auzo elkarte gisa geratu zen. Gure elkarteak Harresi auzo elkartean du jatorria eta duela 8 urte sortu zen.

Beste edozein elkarte bezala al dago antolatua zuena?

Bai; gure estatutuak ditugu, gure zuzendaritza-batzordea...

Zenbat bazkide zarete? Zeintzuk dira elkarteko kide izateko baldintzak?

Kide kopurua nahiko erlatiboa da, baina 30 lagun inguru gaude hemen sartuta. Batzuk joan egiten dira, beste batzuk etorri, eta kopurua nahiko aldakorra da. Emakume eta gizonen artean, gizonetakoak emakumetakoak baino gehiago dira, agian neskak izutu egiten dituelako soinean 40 kiloko zama eraman beharrak. Dena den, erraldoiak oso orekatuak dira eta neskek ere arazorik gabe eraman ditzakete eta eramaten dituzte. Adinari erreparatuz, kide gehienak 18 urtetik gorakoak

dira; gehienak 30-35 urteko bazkideak dira, nahiz eta txikiak ere badauden, baina ez asko. Baldintzei dagokienez, ezin gauza handirik esan, elkartean sartzeko ez baitugu baldintza jakinik jartzen. Ez dugu ez kuota-rik ezta betebeharririk ere, baina gauza bat eskatzen dugu: erraldoiak eta buruhandiak gustatzea, eta elkar-tearekin konpromisoa edukitzea.

Nolako ekintzak antolatzen dituzue? Urtero ekintza berak antolatzen dituzue?

Guk bakarrik antolatzen dugu -Hondarribian urtero egiten den erraldoien topaketa-, baina makina batean hartzen dugu parte, hala nola, inauterietan, herri-giroan, herriko festetan... Horietaz guztiez gain, Urnieta, Hernani, Lezo, Irun eta Donostian barrena ibiltzen gara, eta erkidegotik kanpo ere izan ginen iaz -Bartzelona, Madril eta Valladoliden-.

Zeintzuk dira elkarteak dituen beharrak?

Arrazoi batengatik ditugu behar handiak: elkarte askok irteerak dirua kobratzen badute bakarrik egiten dituztelako. Guk askotan trukeak egiten ditugu; adibidez, guk kontzentrazioaren bat antolatzen baldin badugu eta bertara etortzen diren taldeei ordaindu ordez bazkari edo gosaria ematen baldin badiugu, gero guri deitzen digutenean ere dirurik ez da egoten tartean, hau da, ez dugu kobratzen, normala den bezala. Guri Leon edo Madriletik deitzen digutenean bertara arazorik gabe joatea gustatuko litzaiguke. Udalarekin hitzarmen bat egina dugu eta diru-sarrera bat badaukagu; lokala ere badugu, baina ez da aski. Erraldoiak udalarenak dira



Asier, zenbait erraldoi eta buruhandien artean

eta gu erraldioen kudeaketaz arduratzen gara, baina guk ekintza gehiago antolatzeke eta elkarte gisa funtzionatzeko lekua behar dugu. Erraldoiak gordetzeko lekua badugu, baina guk beste txoko baten premia daukagu mahai eta ordenagailu batekin talde bezala bilerak egin ahal izateko.

Lan handia al da elkarte aurrera ateratzea?

Bai, lana da urtean zehar astero bilerak antolatzen ditugulako, udalarekin ere bildu behar izaten dugulako..., baina lan handia dela agian ez nuke esango; hori oso gauza erlatiboa da.

Elkarteko lehendakari izateak bere alde onak eta txarrak izango ditu...

Noski, polita da zure lanak zerbaitetarako balio izan duela



Ainara Elizondo

ikustea, baina aldi berean lana norberaren bizkar egotea ere astuna da.

Zenbat erraldoi eta buruhandi dituzue elkarteak?

Ez dira gutxi, egia esan. Lehenik, hiru erraldoi bikote ditugu mende hasieran zeuden hiru giza nukleoak erakusgarri: baserritarak, arrantzaleak eta herritarak. Bigarrenik, bi lagun artean eramaten den balea dugu, eta horizontala den Euskal Herriko bakarra, gainera. Hirugarrenik, antxoia eta atunaren omenez egindako bi erraldoi txiki ditugu; sare pelajikoen arazoa sortu zenean arrantzaren munduari laguntza eman nahian eginak dira eta hurrek eramaten dituzte. Laugarrenik, 2001ean Euskal Herriko musika topaketan erabilitako maskota modukoa dugu. Urte hartako topaketa Hondarribian egin zen eta topaketarako propio zuzendari itxurako irudi bat egin zen. Egun hartarako bakarrik erabiltzea pena zenez, guk geuk konpondu eta orain kalera ateratzen dugu. Bosgarrenik, urtean behin bakarrik erakusten dugun erraldoi bikote zaharra dugu. Bukatzeko, berriz, buruhandiak aipatu behar; izan ere, hamasei inguru dauzkagu, baina berriak baino ez ditugu ateratzen, zaharrak konpontzen ari gara. Bistakoa denez, figura dezente dugu; irudi guztiak ateratzeko, ordea, gaudenak ez gara nahiko.

Aurrera begira ze asmo duzue?

Ikastxeetara joan nahi dugu hurrei gure erraldoiak erakustera eta buruhandiei beldurrik izan behar ez dietela frogatzera. Horrekin batera, gure asmo nagusia orain arte bezala erraldioen mugimendua zabaltzen jarraitzea da. Erraldoiak panpin soilak baino askoz gehiago direla ikusarazi nahi diogu jendeari; historikoki eta kulturalki gure ondasunaren zati direla. Erraldoiak duela 500 urteko tradizioaren ispilu dira, baina hemen ez dute Katalunian adina-ko oihartzunik.

BAR - RESTAURANTE LARRA

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

- * KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
- * ASEGUROAK

Euskal Herriaren erlijio-aztarnak historian zehar



Martin Iturbe

Aldizkari honetako azken alean, santu euskaldunei buruz zerbait aipatzen hasi nintzen, eta gerora zerbait gehiago zehazteko asmoz, ateak zabalik utzi nituen. Hala ere, gaurkoan, lehenagotik zintzilik neukan gai bati buruz idatziko dut.

Jakinaren gainean jarri nahi zaitut irakurle, hemen agertzen joango naizen gai hau, "Gizona Jainkoaren bila" liburutik hartua izan dela, zuzeneko iturrira jo nahi izanez gero, iturri horren berri jakin dezazun.

Ipuin, kontakizun, sineskeria eta abarretan oinarritua aurkitzen da aintzineko gure pentsabidea. Sustraiak deituko genioke guzti horri. Gaurko honetan, euskaldunoi aspaldidanikoa zaigun ipui bat besterik ez dut ekarriko. Gainerako erlijio-aztarnen aipamena gero-koetan agertzen joango naiz.

Lagunartean kontu kontari ari ginen batetan, ipuin hau kontatu nuen, euskaldun askorentzat oso ipuin ezaguna dena, noski. Baina ezezaguna izateaz batera hain polita iruditu zitzaion solaskideei, nola eskatu zidaten argitara nezan, gure arteko askorentzat ezezaguna omen zela eta.

Hona hemen bada, J. M. Barandiaranek jaso aeta argitaratua den ipuina:

Denbora batean, Muskiko koban baxajaunak bizi izan omen ziren. Han, inguruko mendigañetako

lurrek ebalita, sekulako gariak biltzen omen zituzten. Beheretan kristatuak bizi omen ziren eta artean ez omen zuten garirik ereiten, galazirik e zeta. Behin, Sanmartintxiki, botin haundi batzuk jantzita, igo omen da Muskiko kobara.

Ta hango gari pilak ikusita berari zeinek saltoka ari-ñago erain baxajaunekin apustu egiten du. Baita baxajaunek berealdiko erruan erain omen ziren. Sanmartintxiki berriz gari pilen erdira erori omen zen. Baina baita botiñak galalez bete ere. Gero, handik aldeginda, Sanmartintxiki bere etxera zetorrela, baxajaun bati bururatu omen zitzaion hark botiñetan galazie zeramala, ta hartu haizkora txikie ta bota omen zion, baina ez hura harrapatu. Haizkora txikie Olasastiko Gaztiñaipurdi baten sartu omen zen.

Kristauek ez omen zekiten garie noiz erein, baina halako batean baten batek baxajaun bati aitu omen zion nola algaraz egiten zuen:

Ja jaaai balekia hartuko likenea:

Orri irtete arto ereite.

Orri erorte gari ereite.

Ta San Lorentzotan arbi ereite.

Ordutik zabaldu omen zen garie herri danetara.

Bere puntúa baduela uste dut, San Martin haundia-
ren egun hauetan, Sanmartintxikiren ipuina
kontakteak.

Erdi Aroko Europaren hego-mendebaldeko hiribilduen kongresua ospatu da

Udaleko Areto Nagusian aurkeztu zen 'Erdi Aroko Europaren hego-mendebaldeko hiribilduak: Erdi Aroko fundaziotik XXI. mende arte. Historiaren azterketa eta egungo irakurketa' deituriko eskualde arteko jardunaldiak. Carlos V paradorean burutu ziren azaroaren 16 eta 18 bitartean.

Aurkezpen ekitaldian izan ziren Aitor Kerejeta lehen alkateordea, Arkeolaneko zuzendari den Mertxe Urteaga, eta Pia Alkain, elkarte bereko kidea. Kerejetak jardunaldi hauen "garrantzia azpimarratu zuen. Duela urte bete Arkeolan Udaletxera etorri zen ideia honekin eta guk ez genuen inongo duda izpirik eduki. Euskal Herriko, Espainiako eta Europako aditu asko egongo diren artean, Erdi Aroko hiribildu hauek izan zuten garrantzia azpimarratzeko eta gaur egun Udalean egin den lanaz hitzegiteko. Guztiok XXI. mendeak eskaintzen dizkigun berrikuntzekin bizi nahi dugu, baina XIV. mendean eraiki ziren kaleak ditugunean ez da hain erreza, horregatik Udalak esfortzu berezia egin du azken urte hauetan. Ikusi besterik ez dago zenbat birgaitze lan egin den azken aldiotan".

Mertxe Urteaga, Arkeolaneko zuzendariak "hiribildu" kontzeptuari garrantzia eman zion. "Erdi Aroko hiriak ziren, azpiegitura guztiak zituzten, bideak, multzo erai-kiak eta espazio publikoak, eta harresi batez inguratuak, hau zen bere muga zehazten zuena. Gipuzkoa 25 badira, adibidez, Hondarribia, Donostia, Errenteria, Hernani, Ordizia, Villabona... Europan milaka daude, Kievetik Villafranca de Cordoba-ra heldu arte". Jardunaldiak dagokionez "unibertsitate eta erakunde desberdinetako profesional askoren iritzia izango dugu, Garona hegoalde-rik San Vicenteko lur-muturrera heldu arteko hiribilduen berri emango digutenak".

Kongresuan hitz egin zuten espezialisten artean, Euskal Herrikoak, Estatukoa,, Frantziakoak eta Portugal-ekoak izan ziren. Bakoitzak bere lurraldeko hiribilduek zituzten ezaugarriak azpimarratu zituzten, eta aurrera begira jarraitu beharko duten ibilbidea zehazten saiatu ziren. Hondarribiaren kasuan, Borja Jauregi alkateak hiribilduak duen garrantzia azaldu zuen, Hondarribiko Udaletik bere mantenurako egin den lana goraipatu zuelarik.



Borja Jauregi eta Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik egin zuten kongresuaren irekiera ofiziala

Euskara Batzordeak Neguko

Duela hamabost urte pasatxo hasi zen Hondarribiko Udala Neguko Jardunaldiak antolatzen. Hasera batean bere iraupena aste betekoa izaten zen, eta "Euskal Astea" bezala ezagutzen zen. Denbora pasa ahala, iraupena luzatzeko beharra ikusi zen eta egun hilabete osoa irautean dute jardunaldiek.

Azaroak 26 igandea

"HONDARRIBIA EUSKARAZ"

Txirrinda martxa, haur eta helduentzat
(Hondarribia Txirrindulari Elkartearen laguntzarekin)

Irteera: Hondartza kiroldegiaren aurrean

Helmuga: Santiago kalean

Ordua: 9:30etik 11:00etara

(Aurreko urteetan bezala kamisetak banatuko zaizkie parte hartzaileei)

KULKI (haurrentzat herri kirolak eta jokoak)

Lekua: Santiago kalea

Ordua: 11:00etatik 13:00etara

Abenduak 1 ostirala

TXAN MAGOA

(Haurrentzat magiazko ekitaldi harrigarria, hitz magikoak erabiliz "Artxila martxila")

Lekua: Hondartza kiroldegia

Ordua: 18:00ak

Abenduak 2 larunbata

"ARTEA" antzerkia (Txalo produkzioak)

(Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Asier Hormaza aktoreak)

Lekua: Amuteko auzo elkartearen egoitza.

Ordua: 7:30ak

Abenduak 10 igandea

KALEAN KANTUZ

(herri kantak, nahi duen guztiak parte hartzeko)

Aurten toki berezi bat eskaini zaio Maltzeta trikitilariari, duela gutxi gure artetik joan baita. Hortaz gain, gure Hondarribia aldi-zkariak 20 urte bete ditu aurten, eta hori dela eta, ale berezi bat argitaratuko du Euskara Batzordeak.

Hauxe da aurtengo Neguko Jardunaldietako egitaraua:

Lekua: San Pedro Kalea

Ordua: 12:00ak

Abenduak 13 asteazkena

Bidasoaldeko Ikasleen Euskara Elkartearen Topaketak

Irun eta Hondarribiko ikastetxeetako euskara elkarteetakoek ekitaldia Berritzegunearen laguntzarekin.

Lekua: Zuloaga etxea

Ordua: 10:00etatik 13:00etara

Abenduak 14 osteguna

"Apaizac Obeto" (XVI. Mendeko Bale-Arrantza Ipar-Atlantikoan)

Jon Maia idazle eta bertsolariaren hitzaldia eta erreportai grafikoa, Ternuara egindako espedizioaren berri emateko. Bertan azalduko da gure arbasoen bizimodua, Kanadako uretan arrantza egiten zuten garaiko ontzi eta materialekin.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Ordua: 7:30ak

Abenduak 17 igandea

LITERATUR LEHIAKETAKO SARIBANAKETA

XXIII. Bordari (ipuina) eta Satarka (olerkia) Lehiaketako irabazleek sariak jaso ondoren, beren lanen azalpentxoak egingo dute bildutako guztien gozamenearako.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Ordua: 12:00ak

Abenduak 20 asteazkena

HONDARRIBIA ALDIZKARIAREN 20. URTEURRENA eta EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAREN AURKEZPENA



Kalean Kantuz abenduaren 10ean ospatuko da



Jardunaldietan era guztietako jarduerak antolatzen dira

o Jardunaldiak antolatu ditu

"HONDARRIBIA" herri aldizkariak 20 urte betetzen dituela eta, ale berezi bat kaleratuko da, bere istorio eta gorabeherak azalduz. Euskal Herriko herri-aldizkariak zaharrenetakoa da, eus-kara hutsez idatzita dagoena.

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Ordua: 12:ak

Abenduak 20-24

EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Urtero bezala, euskal liburugintza eta diskogintzako azken lanak ikusteko eta erosteko aukera izango dugu.

Lekua: San Pedro kalea

Ordua: 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara

Abenduak 21 osteguna

MALTZETA TRIKITILIARIARI OMENALDIA ETA ERROMERIA

Urte askotan gure herrian bizi izan den Juanito Garate "Maltzeta" trikitilariak bere bizitza osoa (1924-2006) eman du soinu txikia jotzen eta irakasten, eta Hondarribian sortutako eskolan jarraitzen du bere alaba Mamenek trikitia irakas-ten.

Santo Tomas egunean, bere ikasle izandakoen kalejira eta zenbait trikitilari ospetsuren emanaldia izango dira.

Ondoren erromeria parte hartu nahi duen guztia- rentzat.

Lekua: San Pedro kalea

Ordua: 18:00etatik 20:30etara



Abenduaren 2an antzerki emanaldi bat egongo da



Diska eta Liburu Azokan, liburuak ez du aurten ere hutsik egingo



Pailazoak Hondartza Kiroldagira etorriko dira



Haurrentzat aktibitate ugari daude

Jostaldi pilotalekuaren berriztatze lanak hasi dira eta 2007ko jaietarako prest egotea espero du Udalak

Hilabete berriarekin hasi dira Jostaldi pilotalekuaren berriztatze lanak. Ibargoyen eraikuntza enpresa da lanen arduraduna, eta sei hilabeteko epea dauka proiektua burutzeko. Aurrekontu orokorra 2,39 milioi eurokoa da.

Aspaldi zaharkituta dagoen frontoiaren berriztapenerako proiektuaren barne, harmailen altuera egungo lege-dia bete ahal izateko egokitzea, zorua berritzea eta kantzaren ezkerreko pareta konpondu eta margotzea daude. Honetaz gainera, ekintza nabarmenena eraikinaren estalkia berritzea izango da.

Lan guzti hauek Jostaldiko barnealdeari dagozkionak dira. Kanpotik ere, fatxadari tratamendua emango zaio, baina eraikinak berak ez du bere itxuran aldaketarik jasango.

Jostaldirekiko lehen asmoa frontoi berria egitea izan zuen Udalak, baina kostua altuegia zelako ideia bertan behera geratu zen.

Pilotalekuaren birgaitze lanek jarraitzen duten bitartean, Hondarribiko Pilota Eskolak bere klaseak Soroetako frontoira eraman dituela aditzera eman du.



Azaroarekin batera, duela 30 urte eraiki zen Jostaldi Pilotalekuaren birgaitze lanak hasi dira. Irudian ikus daitekeenez, lan nagusienak barne egiturari burutzen ari dira. Ibargoyen eraikuntza enpresa da arduraduna, eta sei hilabetetan amaitzea espero da, datorren urteko jaietako pilota partida frontoi berrituan jokatu ahal izateko.

57 lan aurkeztu dira XXII. Bordari Satarka lehiaketara

Azaroaren 15ean amaitu zen Udaleko Euskara Batzordeak antolatzen duen XXII. Bordari eta Satarka literatur lehiaketan parte hartzeko epea. Batzordetik esan zaigunez, denetara 57 lan jaso dira. Lau urtez jarraian partehartzeak gora egin bazuen ere, azken bi ediziotan lanen kopuruak gorabeherak izan dituen beherakada bat nabaritu da.

Aurtengo edizioari dagokionez, esan Bordari atalean (ipuinena) 37 ipuin aurkeztu direla, hau da iaz baino 15 gutxiago. Hauetatik hamaika, iaz bezala, A mailan (18 urte gorakoentzat) kokaturik daude eta gainerako guztiak

(26) B mailan, hau da, 18 urte beherakoak. Atal hau izan da gorakada markatu duen bakarra.

Satarka lehiaketan aldiz, A mailan hamairu poesia aurkeztu dira. B mailarako zazpi testu bildu dira, joan den urtean baino bat gehiago.

Sari banaketa abenduan burutuko da Udaletxeko Areto Nagusian, Neguko Jardunaldien barnean. Euskara Zerbitzutik eskerrak luzatzen zaizkie partehartzaile guztiei, urte urte lehiaketari ospe eta izaera propioa ematen laguntzen dutelako.

Emeki elkarteak tapizeria ikastaro bat antolatu du

San Pedro kalean kokatzen den Emeki Elkarteak aurtengo denboraldirako ikastaro berri bat antolatu du. Urtero antolatzen dituzten ohiko ikastaroez gain, tapizeriako bat antolatu du, guztiz irekia eta nahi duenak izena eman dezakeena.

Asteartetan izango da arratsaldeko 16:30etatik 18:30etara, eta kostua 25 eurokoa izango da.

Esan bezala, partehartzea librea da eta informazio gehiagorako **943 643402** telefonora deitu behar da.



niretzat zuretzat guztiontzat

San Pedro 57 • 20280 Hondarribia
943 643 805

Focus
DAILIES™

Ikusmen egokitze-
mota guztietarako



Ikusmenaz goza ezazu



NI
nire
betaurrekoak
nire lentillak
Focus DAILIES



CIBA
Vision

Laxoa, euskal pilota modalitaterik zaharrena



Koldo Ortega

Laxoa, egun daukagun euskal pilota-joko modalitaterik zaharrena da. XVIII eta XIX. mendeetako kroniketan joko horren gaineko aipamenak daude, eta haiek diotenez, laxoa joko nagusia zen Euskal Herri osoan, Nafarroan bereziki. Gaur egun, Nafarroako iparraldean, Baztanen eta Malerrekan jokatzen da soilik, baia Hondarribian ere.

Antzina, artzainek edozein soropiletan antolatzen zituzten laxo partidak, baina gaur egun pilota-joko hori, 50-70 metroko luzera eta 12-20 metroko zabalerara duen zelai laukizuzen batean jokatzen dute. Zelaiak, mutur batean, pareta bat du: errebotea. Marra batek zelaia zatitzen du eta talde bakoitza bere zelai erdian dabil. Bazterrak eskas izeneko marra batzuek mugatzen dituzte.

Jokoa sakearekin hasten da.

Sakea egiteko botarria, batzuetan zurezkoa, beste batzuetan harrizkoa edo zementuzkoa, erabiltzen dute.



Laxoako partidak Gernikako Arbola plazan jokatzen dira

Taldeek launa jokalaria dituzte: sakatzailea, numeroa eta bi kuarto. Jokalariak erremonteko antzeko eskularruak erabiltzen dituzte pilotari emateko. Pilota larruzkoa da. Jokoa bertze parte hartzailea txatxaria da. Horren zeregina tantoak eta jokaldiak kantatu eta marrazteak dira.

Baztanen eta Malerrekan baizik gorde ez den pilota-modalitate hori gutika-gutika ahanzten ari zen, harik eta 1960 eta 1964 bitartean eskualde honetako herrien artean txapelketak antolatu ziren arte.

Hondarribian ere

Horrek laxoa berpiztu zuen, baina handik gutxira, berriro ahaztu egin zen. Egun batzuetan baizik ez zuten jokatzen,



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL
Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Alde Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

herrietako jaietan gehienetan. Laxoaren benetako berpiztea 1979an gertatu zen, herri batzuen artean lagunarteko partidak antolatu zituztelarik. Eta 1980. urteaz geroztik laxo partidak maizago antolatu dira, Baztan-Errekako Laxo Lehiaketari esker. Egun ere jokatzen dute txapelketa hori. Hondarribiko Pilota Eskolak iaztik parte hartzen du txapelketa honetan, maila ona erakutsiz gainera.


Hondarribia ere kirol diziplina honen berpiztearen lekuko dugu, lekuko aktiboa gainera. Koldo Alegria eta egungo Pilota Eskolako zuzendaritzak egindako esfortzuari esker, modalitate ikusgarri hau berreskuratzeko lanak abian daude. Zenbait partida jokatu dira Gernikako plazan, eta bildutako ikusle kopurua arrakasta nabaria izan dela esan daiteke.

Gernika Arbola zelaian jokatzeari ez da inolako kointzidentzia, herriko askok gogoratuko dute bertan zegoen


frontoi zaharra, haren aurretik Laxoa zelaia zela ikus dezakegu Baionako Euskal-Museoan dagoen Gustave Colinen "Partie de pelote sous les remparts de Fontarabie" oleoan, 1863an margotutakoa.

Zorionik beroenak gure aldetik Pilota Eskolako ardura-dunentzat, hain historikoa eta era berean ederra den modalitate hau berreskuratzeari. Hasierak gogorrak izaten dira beti, eta kosta egingo du ziurrenik, baina hori da hartu beharreko bidea. Beste guztiok, antolatzen dituzten ikuskizunetan gozatu besterik ez dugu egin behar.

Amaitzeko, aurtengo txapelketan parte hartu duten Hondarribiko kirolarien zerrenda aipatuko dugu: Amboage, Huarte, Festa anaiak, Alegria, Andres eta Salaberria. Guztiak Joakin Ziganda prestatzailearen aginduetara aritu dira.



Baionako Euskal-Museoan dagoen Gustave Colinen "Partie de pelote sous les remparts de Fontarabie" oleoa, 1863an margotutakoa




kai zahar
pub
almirante alonso, 12

kai zahar

truck
diskoteka
foru kalea, 13





kaialde

jatetxea · restaurante
erretegia · asador
itsasargi 8 · 20280 · hondarribia
tel. fax 943 644 622 · kaialde@yahoo.es

Arrantza denboraldia bukatu da antxoaren kosterako dirulaguntzak jaso ahal izateko



Herriko 17 itsasontzik 600 eta 3000 euro bitarteko laguntzak jasoko dituzte

Arrantza denboraldiaren hasieran antxoaren kosteran hasi ziren ontzi gehienek amaitu dute jadanik denboraldia. Arrazoia argia da, Espainiako Nekazaritza eta Arrantza Ministeritzak eskaintzen dituen laguntzen baldintzetan sartzea. Ondorioz, hiru astetan aurreratu da amaiera.

Arrantzaleek jasoko dituzten laguntzak gutxienez 600 eurokoak izango dira eta gehienez 3000koak, bakoitzak egin dituen harrapaketak kontuan hartuko direlarik. Hori dela eta, 5000 kilo hartu ez dituzten armadoreek kopuru osoa jasoko dute (3000 euro). Gure hirian lau ontzi daude egoe-ra honetan.

Bien bitartean, 5.000 eta 9.000 kilo artean harrapatu dituzten sei ontziek 2.100 euro jasoko dituzte. 9.000 eta 12.000 kilo artean ibili diren hiru ontziek 1.500 euro jasoko dituzte. Beste hiru ontzik 900 euro jasoko dituzte, eta azken batek gutxienezko laguntza jasoko du, 600 euro, 15.000 kilotik gorako harrapaketak egin dituelako.

Aipatutako laguntza hauek jasotzeko bigarren baldintza bat bete behar da: apirilaren 1etik ekainaren 30 arte zonalde konkretu batean arrantzan aritu izana (iparraldean 44 paraleloa, eta mendebaldean 4 meridianoa). Hondarribiko ontzi batek ez du baldintza hori bete eta laguntzetatik at geratu da.

40 egunetako geldialdia

Hori gutxi balitz, ezinbestekoa da arrantza denboraldian zehar 40 egunetako geldialdi bat egitea. Itsasontziak maiatzaren amaiera eta ekainaren hasieran 11 egunez geratu ziren, eta beste 10 Jai Herriko Jaiak zirela eta.



bar-restaurant
**arrantzaleen
kofradia**

Menú del Día Menú Especial
Carta
Pintxos Fríos y Calientes

Pº Iribarren, s/n -nueva lonja
20280 - HONDARRIBIA (Gipuzkoa)
Tel. 943 64 42 12





Hemen zure opariak eros ditzakezu; PSP, PS2, filmeetako pertsonaiak...

The Big Orange

Puntuak opariengatik aldatu, Orange txartelarekin

Etkez-etxeko zerbitzua duen zure bideo kluba

Beraz, 19 egun geratzen dira, eta azaroko lehen hiru asteak izatea erabaki da. Denboraldia amaituta, arrantzaleak INEM-en langabetuen zerrendan egongo dira denboraldi berria hasi arte.

Norberto Emazabel Abade Nagusiaren hitzetan, "logikoena laguntzak denei banatzea zen, eta ez portzentaien arabera banatzea. Oso denboraldi txarra izan da antxoarena, eta laguntzak urriak direla uste dugu".

Bigarren urtez Gibraltar ingurura atunaren arrantzara ez da ontzirik joan, "oso harrapaketa urriak egin baitira azken urteotan. Ez du zentzurik haraino joatea arrantzatzen dena ikusita" dio Emazabelek.

Antxoaren kostera txarra izan bazen ere, atunarenak emaitzak asko hobetu zituen, eta Abade Nagusiak balorazio "positiboa" egiten du.



Atunaren denboraldi onak antxoaren kostera kaxkarra ahal den neurrian estali du. Norberto Emazabel Abade Nagusiak balorazio positiboa egiten du amaitu berri den sasoiaren gainean.



OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

Bixente Muñoz Donostiako 'Gastronomiaren Onena' VIII. Biltzarrean izan berri da



Gastronomiaren Onena VIII. Biltzarrak "munduko sukaldari onenak" bildu ditu azaroa erdialdera Donostiako Kursaal-ean ospatu den bilkuran. Horrela, besteak beste, Pedro Subijana, Seiji Yamamoto edo Ferru Adria izan dira. Horien artean izan da Bixente Muñoz hondarribiarra, Gran Sol taberna eta jatetxeko sukaldaria.

Biltzarrean Nazioarteko sukaldaritzaren joera berriez aritu dira, euren formatu guztietan. Gainera, Suitzak, Alemaniak eta Ingalaterrak bat egin dute aurten biltzarrarekin. Bestalde, Holandako ordezkartzen handitzea eta Italia eta Frantzia bezalako ordezkartza garrantzitsuak mantentzea nabarmendu dute. Zentzu honetan, antolakuntzak adierazi du Europak duen garrantzia "nabarmen" berresten dela edizio honetan. Goi-sukaldaritzaren teknika, tortilla txapelketa, txokolatearen biltzarra, espazio tematikoak eta Espainiako pintxo eta tapen taberna onenaren Cruzcampo Txapelketa bezalako gaiak izango dira egitarauan.

Bixente Muñozek bere sukaldaritzako lau proposamen egin zituen, erabiltako teknika eta eboluzioa zeintzuk izan ziren azalduz. Laguntzaile bezala Nekane Muñoz eta Txemi Moreda izan zituen, jatetxeko sukaldariak. Ezagupen berri honek Muñozek azken urteotan egindako lana saritu egin du.

Aiert Alonso 'Marca' egunkariaren lehiaketako finalera iritsi da

Aiert Alonso hondarribiar margolaria Marca kirol egunkariaren IV. Pintura Lehiaketako 38 finalisten artean egon da. Argazkian ikusten den Pietà izeneko olio lana aurkeztu duen Alonsorentzat, "oso garrantzitsua izan da 400 lanetik gora egon eta horien artean berritua finalista izatea. Lehiaketa honek maila handia dauka eta ez dago batere gaizki finalera heltzea".

Azken bi urteotan Ortizyiko eta PablitoZalakain obreakin gertatu bezala, Alonsoren koadroak Madrilan ireki duten erakusketan parte hartuko du. "Animoak ematen dizkit horrek, nahiz eta berritua ere sari nagusien atarian geratu. Datorren urtean berritua ere sailatu beharko dut", esan zuen Aiert Alonso margolariak.



Zer da nekazaritza ekologikoa?

Nekazaritza ekologikoak hiru oinarri dauzka: ongarri naturala, bere egiturari kalte egin barik lurra lantzea eta labore elkartua eta txandakakoa.

Nekazaritza ekologikoak, ohiko nekazaritzak ez bezala, ez du erabiltzen ez ongarri kimikorik, ez pestizidarik, ez fitohormonarik, ez gainerako sintesi-produktu kimikorik. Honela, ziklo biologiko naturalari eusten dio eta ez dio ingurugiroari kalterik egiten.

Elikagai ekologikoak kontsumitzeko hamaika arrazoi:

1.- Gure baserriarren jarraipena ziurtatzea.

Nekazal ustiapen txikia indartzen du eta nekazal lanpostuak sortzea errazten du.

2.- Lurraren higadura murriztea.

Lur bizia, era naturalez ongarritua, granja ekologikoen elika-kateko ardatza da. Granja konbentzionaletan, lurra leheneratzeko duen ahalmen naturala baino zazpi aldiz bizkorrago higatzen da.

3.- Uraren kalitatea babestea.

Granja konbentzionaletan erabiltako pestizidek kutsatu egin dituzte biztanleria erdia baino gehiagok duen edateko uraren iturriak.

4.-Energia murriztea.

Gaur egun energia gehiago erabiltzen da ongarri sintetikoaren produktioan, goldatu, erein eta uztatzen baino. Nekazaritza ekologikoak energia handia aurrezten du egiten duen erabilera egokiari esker.

5.- Kimikarik gabe jatea.

Pestizidak organismo biziak hiltzeko asmoz egindako pozoiak dira

eta horregatik gizakiontzat ere kaltegarriak izan daitezke.

6.- Nekazariaren osasuna zaintzea.

Herbizidekin lan egiten duten nekazariak gainerako langileek baino 6 aldiz errazago har dezakete minbizia. Urtean, milioi bat nekazari pozoitzen dira herbizidekin munduan.

7.- Nekazal garapenerako tresna.

Nekazaritza ekologikoak nekazari-lanpostuak sortu eta mantentzen ditu, eta nekazal jarduerari lehentasuna ematen dio garapen-prozesuan.

8.- Biodibertsitatea erraztea.

Monolaborantza nekazaritza tradizionalaren era estandarra da, plagiziden erabilera hamar aldiz handitu bada ere, uztak bikoiztu baino ez dira egin. Nekazaritza ekologikoak ordea, bere praktika tradizionalekin, biodibertsitatea errazten du.

9.- Tokian tokiko merkatuak bultzatzea.

Baserriarrari zuzenean erosiz gero, nekazaritza ekologikoren produktuak ez dira garestiago egiten eta balio erantsi guztia baserriarren eskuetan uzten dugu. Honela, ekoizlea-konsumitzailea

harremana hobetzen da.

10.- Zapora hobeaz gozatzea.

Granja ekologikoetan lurzorua bizirik eta osasuntsu egonda, landareak hobeto daude eta haiek jatean gure zaporea ere bai.

11.- Etorbizuneko belaunaldiak zaintzea.

Guk ez dugu lurzorua gure gurusoengandik oinordetzan hartu, maileguan daukagu gure seme-alabentzat baizik.



-Lima soja esnea: 1,95 €

2 unitate %20 deskontua & 12 + 4 dohainik

-Eco-Salin fruitu marmelada 325 gr: 3,65 €

1 + 1 dohainik

-Sanituri soja flana 250 gr: 2,30 €

2 pack % 20 deskontua

-QI Te berdea mentarekin: 3,65€

1 + 1 dohainik

-Beste esne eta produktoak

12 + 1 dohainik

.Arreta pertsonala


EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



EZ DADILA EGUZKIA SARTU


Gerrako lubakitik futbol-zelaira eramane zizuten hainbat gazte 1937ko udaberrian. Futbolariak ziren denak ere, Espainiako ligan hainbat ekipotan jokatu ohi zutenak, baina

baloiairen ordezkari hartu zutenak, Euskadi eta Errepublikaren defendatzeko. Agintariak, ordea, galtza motxetan jarri zituzten berriez, Euskadiko selekzioa osatzeko eta Europar barrena zenbait partida jokatuz mesede handiagoa egingo zutelakoan. Propagandaren partida inportantea baitzen gerra irabaztekoan, lubakiak bezainbat.



HONDARRIBIA ETA IRUNGO EUSKARA

Hondarribiko eta Irungo hizkerak dialektologi alderditiak aztertzea da liburu honen helburu nagusia: hizkuntza ezaugarri eta arau nagusien bilduma egin, eta zein ezaugarrietan diren berdinak eta zeinetan ez agertzen. Era berean, hizkeren euskalkien sailkapenean dute kokaguneak buruzko argibideak ematea



HONDARRIBIA IRUDITAN

Duela urte batzuk, udal artxiboak postal bilduma eskuratu zuen, XIX. mende bukaeratik, gure hiriko bizitza, arkitektura eta paisaia islatzen zituenak. Proiektu honen bidez, postalak interesatuen esku egotea lortu nahi da. Hori dela eta, postal hauek CD batekin argitaratu dira. Postal hauek, gaika multzokatuak, Martin Iturbe jaunak eta Jesus Mari Mendizabal "bizargorri" idatzitako olerki eta bertsoen sarrera dute. Gainera CDan, hiriko kulturaren ondarea diren hainbat musika biltzen dira. Idazkera, irudia eta musika bat egiten diren proiektua.



HONDARRIBIKO HISTORIA

Liburu honen bidez gure hiriaren Historia bildu nahi izan da era kronologikoan Historiagutietatik frankismoa arte. Horretarako 15

historialariko taldearen lankidetzak izan da Deustuko Unibertsitateko Jose Luis Orella irakasleak koordinatuta. Fidaragitasun historikoa duen liburua eta derrigorrezko kontsulta liburu bihurtuko dena. Historialari taldea honako hauek osatzen dute: Jesus Altuna, M^a Mercedes Urteaga, Jose Luis Orella, Lourdes Soria, Manex Goienetxe, Antonio Prada, Carlos Larrinaga, Pedro Barruso, Alvaro Aragon, Iñigo Hidalgo, Maria Isabel Astiazaran eta Txomin Sagarzazu.



KARABANA BATEAN BIZI NAIZ

Daniel Karabana batean bizi da gurasoekin, arrebeekin eta aitonarekin. Beti leku batetik bestera ibiltzen dira. Aitona asko maite du Danielek, nahiz eta batzuetan gogaitu egiten den haren historia zaharrekin. Aitonak jende ibiltarien kontu zaharrak berritzen jarduten baitu beti; beren bizimodua nolakoa zen garai batean, karroan ibiltzen zirenean behorak tirata, edo suaren garrantzia, suak berotatsuna ematen baitu, eta denik eta sendabiderik onena baita, aitonaren esanetan, bat gaixotzen denean. Danielek gustuko du karabanako bizimodu ibiltaria, abentura asko bizitzeko aukera ematen baitio horrek. Eta lagunei nola bizi diren kontatzen dienean, inbidia eragiten die guztiei.



PASEOS POR LA CIUDAD

Hirien barrena irudimezez ibiltzen lagunduko dizu liburu honek, ingurari erreparatzeko eta etxe edo ikuspegi baten aurrean gelditzea gonbitea egingo dizun testu baten laguntzaz. Testuarekin batera modu eraginkorrean, irudimena piztuko dizuten akuarela, marrazkiak, irarlanak eta argazkiak azalduko zaizkizu.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**



Gazte informazioa azaroan

IT TXARTELA

IT Txartela, Informazioaren Teknologietan oinarritzko Gaitasuna Ziurtatzeko Sistema bat da, eta pertsona batek tresna informatikoak eta Internet erabiltzeko dauzkan ezaguerak egiaztatzen ditu. Hondarribiko KZ Gunean atera dezakezu. Informazio gehiago eskuratu nahi baduzu pasa zaitez bulegotik, KZ Gunetik edota sartu zaitez web orrialde honetan: <http://www1.eeuskadi.net/ereg/>.



BORDARI ETA SATARKA LITERATUR LEHIAKETA

Ipuinak edota olerkiak idaztea guztatzen al zaizu? Ona zarela uste duzu?

Hondarribiko Udaletxeak antolatu du lehiaketa.

Zure trebetasuna garatu nahi baduzu, parte har ezazu!

Oinarriak bulegoan daukazu.

Lana aurkezteko epea: **azaroaren 15ean.**

Lanaren bila zabiltza?

Hemendik aurrera...

Lan Dossierra Interneten!!!!

Orain arte dossierra bulegoan kontsultatzeko aukera zeneukan, baina astero prentsako lan eskaintzen dosierra Interneten izango duzu:

www.gipuzkoa.net/gazteria

GAZTE INFORMAZIOA atalean, baita bidaltzen dugun buletinean ere ZINTZILIK SAREA izeneko atalan begiratu!!!



ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

RAFAEL
TABERNA · BAR



San Pedro Kalea - T. 943 64 61 14
20280 Hondarribia

Zein da horma edo mural hauen izena ?



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Urriko alean jarritako galderari ia 60 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Amaia Lekuona Otsoteko**. Berak esan bezala, lasai exerita dagoen lehoi hau Sabin Arana kalean dago.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriko erdigunean dauden mural batzuk dira, harrizkoak. Milaka aldiz ikusi ditugu, baina agian askok ez dakitena, mural edo horma honek izen berezi bat daukala da. Galdetu egin beharko duzue, eta erantzuna lortu.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, abenduaren 15a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Erota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Faroko diskotekaren azken irudietako bat



Hondarribiaren historiaren lekuko diren irudiak argitaratzen ditugun atalera iritsi gara berriz. Udal Artxibategiak daukan altxor haundiari etekina ateratzea da atal honen helburuetako bat, baina hilero ez da zertan argazki berdinak atera behar.

Oraingo honetan, Hondarribian oso ezagun izan zen diskoteka edo dantzaleku baten irudia dakarkigu. Hobe esanda, dantzalekua izandakoaren argazki bat. Bere garairik onenak 70 eta 80. hamarkadak izan ziren, hori dela eta, asko dira ezagutzen ez dutenak, nahiz eta zerbait entzun duten diskotekaren inguruan. Oso ederra omen zen, baita arriskutsua ere, bertara heltzeko zegoen forma bakarra autoz joatea baitzen.

Era honetako argazkiak dituzuenok eta Hondarribia aldizkarian argitaratzea nahi duzenok, Udal Euskara Batzordera eramatea besterik ez duzue.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 - HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047



arroka berri
restaurant

Higer Bidea, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel. 943 642 712 - Fax 943 641 105
www.arrokaberri.com



Fermin Olaskoaga

FERMIN OLASKOAGAk jasotako datuak:

Urria2006

JAIOTZAK

3an: **ADRIANA Fernandez Guidicelli**, Donostiako Sergio eta Donostiako Alexandra Isabelen alaba.

5ean: **MIKEL Vinagre Garoña**, Donostiako Teodoro eta Donostiako Maria Concepcionen semea.

7an: **LUAR Amunarriz Iridoi**, Hondarribiko Jesus eta Hondarribikoainhoaren semea.

10ean: **LIHER Lazkanotegi Forcen**, Hondarribiko Javier eta Hondarribiko Silviaren semea.

10ean: **ANDER Telletxea Fernandez**, Donostiako Asier Fernando eta Irungo Maria Aranzazuren semea.

14an: **ANDER Eizagirre Sarasua**, Hondarribiko Carlos Luis eta Caracaseko Goizederren semea.

16an: **HIART Perez-Karkamo Zuazabeitia**, Gesaltza-Añanako (Araba) Asier eta Hondarribiko Ainhararen alaba.

17an: **JULEN Larruskain Aizpurua**, Irungo Manuel eta Hondarribiko Raquelen semea.

17an: **ANDER Peña Erauskin**, Hondarribiko Javier eta Hondarribiko Maria Aranzazuren semea.

19an: **EKAITZ Amunarriz Kintana**, Hondarribiko Jaime eta Hondarribiko Itxasoren semea.

24an: **TEO Franco Knutzen**, Hondarribiko Mikel eta Buenos Aireseko Marinaren semea.

24an: **BEÑAT Anzisar Tommasi**, Hondarribiko Ion Imanol eta Hondarribiko Yleanaren semea.

26an: **NORA Perez Urraca**, Donostiako Juan Ramon eta Irungo Elenaren alaba.

27an: **IRIA Caceres Olaizola**, Donostiako Francisco Manuel eta Hondarribiko Iratxeren alaba.

28an: **MIKEL Arana Arzak**, Bergarako Iñaki Joseba eta Hondarribiko Mirenen semea.



EZKONTZAK

7an: **ARITZ Aranburu Minchero**, Irungoa, eta **SAIOA MARIA Badiola Iriarte**, Hondarribikoa.

7an: **JUAN Fernandez Bustamante**, Donostiakoa, eta **MARIA DOLORES Visiers Lekanda**, Irungoa.

14an: **IMANOL Festa Itsaso**, Hondarribikoa, eta **VIRGINIA Garrido Garcia**, Irungoa.

14an: **FERNANDO Pascual Coca**, Donostiakoa, eta **MARIA ISABEL Garcia Albizu**, Irungoa.

14an: **XABIER Goikoetxea Sorzabal**, Hondarribikoa, eta **MARIA ARANZAZU Agirre Urtizberea**, Hondarribikoa.

14an: **ALBERTO Redondo de la Puente**, Donostiakoa, eta **MARIA DIANA Iglesias Rosa**, Irungoa.

21ean: **MIGUEL ANGEL Tebar Pardo**, Donostiakoa, eta **MARIA NIEVES Martin Agirre**, Hondarribikoa.

21ean: **CARLOS Templado Vallejo**, Irungoa, eta **NEREA Ansa Herrera**, Hondarribikoa.

28an: **BIBLIDES Garcia Herraiz**, Hondarribikoa, eta **AGURTZANE Belarra Mitxea**, Irungoa.

28an: **ENEKOITZ Retolaza Aseginolaza**, Idiazabalkoa, eta **JONE Muñoz Laguardia**, Irungoa.

28an: **MANUEL Arruabarrena Arrieta**, Hondarribikoa, eta **AITZIBER Arruabarrena Olazabal**, Irungoa.



HERIOTZAK

5ean: **MARIA CARMEN Oronoz Salaberria**, Hondarribikoa, 83 urte, Irungo Cruz Rojan.

6an: **FORTUNATA Sorondo Goñi**, Hondarribikoa, 90 urte, San Pedro kalean

19an: **CONSTANTINA Ugarte Zapiain**, Hondarribikoa, 95 urte, Baserritar Etorbidean

21ean: **ALFONSO Gorrotxategi Olazabal**, Irungoa, 81 urte, Mendelun.

25ean: **URKO Mendiburu Inda**, Hondarribikoa, 35 urte, Baserritar Etorbidean

25ean: **FERNANDO Argiz Gonzalez**, 72 urte, Gibeletan.

31n: **FELIX Egiababal Seoane**, Irungoa, 58 urte, Juan Ignacio Iztueta kalean

31n: **CUSTODIA Aldaia Hernandorena**, Beintz-Labaiengoa, 83 urte, Jabier Ugarte kalean



URRIKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribikoaireportutik jasoak).

Tenperaturarik gorena:	29,7° C, hilaren 25ean.
Tenperaturarik beherena:	10,5° C, hilaren 13an.
Bataz besteko tenperatura:	19,6° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 68
Euri-litroen kopurua:	103,4 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 11an 34,6 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 11ko 13,45etan, 30,0 litro.
Egun euritsuak:	17 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	0 egun
Ekaitz egunak:	3 egun
Behe-laino egunak:	2 egun
lhintz egunak:	9 egun
Eguzki kopurua:	137,2 ordu
Bataz besteko presioa:	1012,7 milibar
Presiorik gorena:	1027,4 milibar, hilaren 28an
Presiorik beherena:	996,2 milibar, hilaren 18an
Haizea >55 Km/ord.	9 egun
Haizerik indartsuena:	hilaren 3ko 4,45etan, 89 Km/ord.

ARRANTZALE KOFRANDIAN URRIAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 3.746,70 kilo
Hegalaburra (Thunnus thynnus): 146.906,50 kilo.
Hegaluzea (Thunnus alalunga): 78.311,10 kilo.
Boga (Boops boops): 403,10 kilo.
Zarakuntza (Oblada Melanura): 8.375,40 kilo.
Makarela (Scomber japonicus): 8.243,30 kilo.
Korroko (Chelon Labrosus): 2.229,20 kilo.
Muxar handia (Diplodus sargus): 381,40 kilo.
Sabia (Sarpa salpa): 1.104,90 kilo.
Bestelakoak: 273,20 kilo.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK URRIAN

Altak: Jaiotzak: 16, eta kanpotik etorriak: 63
Bajak: Hildakoak: 8, eta herritik joanak: 48
Biztanle kopuru orokorra: 16.399 bizilagun.

URRIKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK.

Mailegatutako liburuak: 355 euskaraz, 1130 gaztelaniaz eta 16 bestelakoak. Guztira: 1501 liburu.

Ekarri diren liburu berriak: 20 euskaraz, 87 gaztelaniaz eta 1 bestelakoak. Guztira: 108 liburu.

Bazkide berriak: 8 gizon eta 17 emakume. Horietatik 13 heldu eta 12 haur. Guztira 25.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak: Euskeraz: GENECHTEN, Guido Van.- Amatox, zergatik.- Ibaizabal.

Gaztelaniaz: IBAÑEZ. -Las mejores aventuras de Mortadelo y Filemón.- Ed. B.

Helduak: Euskeraz: ATXAGA.-Lekuak. - Elkar.

Gaztelaniaz: FALCONES, Ildefonso.- La catedral del mar.-Grijalbo.

Joski

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



